

Astotxoa

Hiztegia

Mikeleteak : lehen karlistadaren ondoren, Gipuzkoako polizia gizona.

Zerga : inposa, bidesaria ("taxe")

Tolosako sartzean gertatu zen. Denbora hartan, "**mikeleteak**" ziren han eta **zerga** bat abere baxotxarentzat ordaindu behar zen : "**katea**" "deitzen zioten zerga huni. Pernando bere astoarekin feriarat joaten zen .

"-Katea **ordaindu** behar duzu, Pernando !

-Katea ordaindu, zergatik ?

-Astoa erematen baituzu !

-Astoaren zerga pagatuko dut bai,... eta nerea ?

-Astoarena bakarrik, gizona, ez zurea !

-Eta bizkarrean zama edo karga handi bat erematen banu ?

-Ezetz, gizona, ezetz. Zurea ez duzu ordaindu behar !"

Hori entzutean, astotxoa bizkarrean hartu zuen eta Pernando joan zen katerik ordaindu gabe.

Amezketan inguru herri ttiki batean ibiltzen zen Fernando. Eguerdi zen eta Pernandoren moltsan ez zen dirurik : nola bazkaldu ostatuan ? Tripa betetzeko zer egin pentsatzen ari zelarrik, apez bat ikusi zuen.

- “Barkatu, jaun erretora, bainan galdera bat egin nahi nizuke.
- Erantzuten ahal badut, galdetu beldurrik gabe.- erran zion apezak.
- Hau da nahi nukeena : herri huntan norbeit bazkaltzerat gomitatea nahi denean, zer erraten zaio ?
- Manera ainitzetan erran daiteke hori.
- Bai, bainan, bat erraidazu, otoi !
- Nola errango nizuke, ba, nik ?... konparazione :”Nerekin bazkaltzerat etorri bazenu atsegin handia emango zinateke”...
- Emanen dautzut, bai, atsegin hori.-erran zion Pernandok.
- Zer ?...
- Horrek loriatzen bazaitu joanen naizela zurekin bazkaltzerat.”

Eta nahi bazuen edo ez bazuen, apez jaunak bazkaltzerat ereman izan behar zuen Fernando.

Ulermena :